

Donostia, 2021eko martxoaren 30a


19/21 PRENTSA OHARRA

DTK-K MEMORIA AURKEZTU DU ETA 2020AREN BALANTZEA EGIN DU

DTK-k 2020ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta Erantzukizun Sozial Korporatiboari buruzko Memoria aurkeztu ditu Administrazio Kontseiluan. Memoria jada eskuragarri dago webgunean: www.dbus.eus

2020a aurrekaririk gabeko urtea izan da, Covid-19ak, gizarteari maila guztietan asko eragin dion munduko pandemiak, markatuta egon baita. Garraio publikoa, oro har, asko kaltetu da, eta Dbusen eskaria %60,20koa izan da. Hala eta guztiz ere, konpainian lan egiten duten langile guztien konpromisoari, ahaleginari eta malgutasunari esker, zerbitzu segurua, kalitatekoa eta erakundeek ezarritako aldaketetara eta jarraibideetara egokitua eskaini da.

Konpainiak egunez egun ahalegintzen jarraitzen du, garbiketa protokoloak eta segurtasunekoak ezarriz, kalitateko zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal izateko eta erabiltzaileen konfiantza berreskuratu ahal izateko, horiek baitira egungo testuinguruan konpainiak dituen helburu nagusiak.



1) 2020ko bidaien gaineko datuak eta eskariaren berreskurapena:

2020. urtean Dbuseko zerbitzuetako autobus bidaiak 17.818.043 izan dira, eta aurreko urtean, berriz, 29.583.538 bidaia erregistratu ziren.

Bidaien kopuruaren jaitsiera nabarmen txikiagoa izan da Donostian beste hiri batzuetan baino. 2020ko abenduan INEk argitaratutako buletineko datuen arabera, Espainian hiri autobusaren eskaera %55,20koa izan da.

Halaber, 2020an, Donostia izan da **eskaera gehien berreskuratu duen hiria** Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuaren gainerakoan. Joera positibo horrek 2021ean jarraitzen du, martxoko lehen lau asteetan %72koa izan da-eta.

Hiri autobuseko mugikortasunean egon den beherakada handiaren ondorioz, **diru bilketaren diru sarrerak %41,45 murriztu dira** eta ordainketa handia egin behar da **COVID-19aren aurkako babeserako kostu operatiboari aurre egiteko**. COVID-19aren inpaktua 6.340.000 eurokoa izan dela kalkulatzen da.


Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea Estatuko Aurrekontu Orokorren 156. xedapen gehigarrian (2020ko abenduaren 31n argitaratu zen BOEn) 275 milioi euroz zuzkitutako erreskate fondo bat jasotzen dela hiri garraiorako, fondo hori 1.000 milioira zabaltzeko aukerarekin. Erreskate fondo horretan oinarrituta, ziurrenik pandemiak ez du batera inpakturik izango DTKn, ondorio ekonomikoen ikuspuntutik.

2) COVID-19ari aurre egiteko etengabeko egokitzapena:

Dbus-ek ahalegin handia egin du **zerbitzua pandemiaren bilakaerara** eta urtean zehar aplikatu diren araudietara egokitzeko, **prebentzio eta segurtasun** politikak bermatzeko, bai erabiltzaileentzat, bai Konpainiako langile guztientzat: ordutegien aldaketa, autobusera sartzeko operatibaren aldaketak, ordainketa sistemak, erabilerarako prestatutako guneak, autobus eta instalazioen garbiketa eta desinfekzioa, aireztatzen protokolo berriak, NBE-en erabilera, etab.

Aldaketa horiek babesteko, informazio kanpaina ugari egin dira. Jarraian dituzue kanpaina horietako batzuk:





Era berean, 2020an Dbusek **COVID-19ari aurre egiteko protokoloen AENORen ziurtagiria** eskuratu du. Ziurtagiriak egiaztatzen du Konpainiak egoera berri honi aurre egiteko Dbusek berak landu duen protokoloan ezartzen diren eta beharrezkoak diren jarraibideak eta neurriak betetzen dituela.



3) Dbizi zerbitzua martxan jartzea:

2020an DTKren zerbitzu eskaintzen barruan sartu zen Dbizi bizikletak alokatzeko Donostiako Udalaren sistema berria. Abenduaren 11n jarri zen martxan sistema berria, eta aurrekoak baino sare zabalagoa dauka, 46 geltokirekin eta 437 bizikletarekin, horietatik 120 elektrikoak izanik, eta 317 mekanikoak. Sistema berriak zenbait hobekuntza ditu bizikletetan zein geltokietan bertan.



Dbizi abian jartzeak ahalbidetzen du Donostiako mugikortasun iraunkorreko eskaintza handitzea, eta erraztu egiten du garraio modu guztien arteko intermodalitatea.

Era berean, gaur egungo testuinguruan, bizikleta bezalako beste garraio bide batzuek indarra hartu dute, eta horrek mesede egin dio Dbizi sistema berriaren harrerari. Martxan jarri zenetik, hilabete baino gutxiagoan ia 2.203 abonatu izatera iritsi da, aurreko sisteman inskribatutako harpidedun guztien kopurura hurbilduta.

4) Flotaren berrikuntza garrantzitsua:

2020an, Dbusek flota pixkanaka berritzen jarraitu du, gutxiago kutsatzen duten eta ingurumena gehiago errespetatzen duten ibilgailuak sartuz. Zehazki, 12 autobus



hibrido sartu dira zerbitzuan, 12 metroko MAN Lions City Euro 6d modelokoak.

Halaber, MAN Articulado Lion 's City G Euro 6 modeloaren 18 metroko lau autobus artikulatu ere sartu ziren. Autobus horiek nobedade garrantzitsu bat daukate. Autobusen erdiko aldean aulki gurgildunetarako eta haur kotxeetarako erreserbatuta dauden hiru leku daude, hau da, gune horretan leku gehiago eskaintzen da. Hiru lekuak behar bezala seinaleztatuta daude eta aldi berean autobus horiek seinale bat daukate aurreko aldean zein erdiko atean, erabiltzaileek kanpotik identifikatu ahal ditzaten. Autobus artikulatuak 2 edo 3 leku dituen adierazten du pegatina horrek.



Dbusek 3 autobus %100 elektriko ditu eta 12 metroko 50 autobus hibrido, hau da, **12 metroko flotaren %57, gutxi gorabehera, elektriko-hibridoa da.** Autobus berri horiekin, flotaren batez besteko adina 6,7 urtekoa da.

5) Energiaren Kudeaketaren AENORen ISO 50001 ziurtagiria eskuratzea:

2020an Energiaren Kudeaketarako Sistemaren UNE-EN ISO 50001 araua internazionala ezarri du Dbusek, baliabide energetikoak modu efizientean erabiltzen utziko dion tresna bat edukitzeko eta horren bidez Konpainiaren energiaren kontsumoa eta igorpen kutsatzaileak murrizteko.



AENORek ziurtatu du arau berri horren ezarpena, eta Dbusen jarduera guztietan erabiltzen den energiaren iraunkortasunarekiko eta efizientziarekiko konpromiso etengabearen adierazgarria da.

Arau horretaz aparte, Dbusek **COVID-19ari aurre egiteko protokoloen AENORen ziurtagiria** dauka, **Bidaiarien Garraio Publikoari buruzko UNE-EN 13816 arauaren arabera**, eta ziurtagiri horrekin 5-Benta Berri, 13-Altza eta 28-Amara-Ospitaleak lineetako zerbitzuaren kalitatea egiaztatzen da. Gaur egun, arauak ezartzen dituen konpromisoak egiaztatzea duten lineetan ez ezik autobus flota osoan eta Konpainiaren eguneroko jardunean ere ezartzen dira. Dbusek eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatean eta Dbuseko erabiltzaileek egiten duten balorazio onean ikusten da filosofia hori.

6) Dbusen aplikazio ofiziala, sare sozialak eta web orria:

Dbusen aplikazio ofizialak 110.000 deskarga baino gehiago ditu, eta iOS, Android eta Windows Phonerako dago eskuragarri. Dbuseko langileek beraiek esanda zein erabiltzaileen iradokizunen bitartez eta aplikazioa asko erabiltzen delako heldu zaizkigun hobekuntza posibleei esker, aplikazio berri bat diseinatzeko proposamena egin ahal izan da. 2020an hasi da aplikazio berria garatzen, eta egungo aplikazioaren nabigazio eta funtzionaltasunak nabarmen hobetuko dira aplikazio berri horrekin.

Sare sozialei dagokienez, Dbusek 9.100 jarraitzaile baino gehiago dauzka bere kontuetan, eta egunetik egunera sendotzen jarraitzen du erabiltzaile bakoitzarekin duen harremana eta elkarriketa indibidual eta pertsonalizatua.

Era berean, 2020an web orriak 1.642.973 bisita izan ditu.

7) Pasa den urtean abian jarritako neurriak eta jarduerak:

- **Markesinak eta panel elektronikoak berritzea:** 2020an markesina modelo berriaren lehen unitateak jarri dira. Datozen urteetan, markesinak berritzean Donostiako geltokietan jarriko den markesina modelo berria da, berritze lan horiekin hiriko markesinen heren bat eguneratuko baita. Donostia modelo da, eta hirirako eskusiboki diseinatu da.



Era berean, markesinak berritzeko planarekin batera, panel elektronikoak berritzeko plan bat diseinatu du, panelak apurka-apurka ordeztzen joateko. Dbusek 114 panel elektroniko ditu hiriko geltokirik erabilienetan, autobusen iritsieraren berri emateko eta erabiltzaileentzat interesgarriak diren beste abisu batzuk emateko.

Panelaren modelo berria sendoagoa da, eta bere karaktereak hobeto irakurtzen dira. Sistema berritzaile bat dauka, zeinarekin zerbitzua erabiltzaileen benetako eskarira egokitu daitekeen, autobus geltokian zain dauden pertsonen kopurua abiapuntu hartuta, horretarako ikuspen artifizialeko sentsoak erabiliz. Sistema hori 2019an ezarri zen bost paneletan, eta orain sistemaren bertsio berri bat garatu da, informazio panelean bertan integratuta dagoena. Hiriko panel guztietan instalatzea aurreikusten da, panelak berritu ahala.

- **Autobus %100 elektriko baten proba:** 2020ko ekainean, Dbusek Solaris High Energy+ bateriak dituen Solaris etxearen lehen autobus %100 elektrikoa probatu zuen hiru astez. Solaris Urbino 12 electric modelo da, 12 metrokoa eta igorpen kutsatzailerik eta igorpen

akustikorik gabekoa. Proiektu pilotua 26-AmaraMartutene linean gauzatuko zen, benetako zerbitzu batean eta bidaiariekin, eta linea horretan hainbat teknologiatako autobusak dabiltzanez zerbitzua ematen, autobus horien funtzionamenduak konparatu ahal izan ziren.



Solarisek utzitako ibilgailuak 200 km baino gehiagoko autonomia dauka High Energy+ baterien teknologiarik esker, eta soilik Kotxetegietan eta gauez kargatzen zen. Konpainiaren autobusen beste ezaugarri batzuk ere baditu, hala nola zoru baxuko plataforma eta gurpildun aulkiak sartzeko arrapala.

- **“5G Euskadi” Proiektua:** 2020an, Dbusek partaidetza irmoa eduki zuen “5G Euskadi” proiektuan, zeinaren bidez 5G sare esperimental bat hedatuko baita Euskal Herriko hiru parke teknologikotan (Miramon, Zamudio eta Miñao) eta Abadiñoko herrian.



Euskadiko lehen 5G proiektu pilotua da, eta bere helburua da Euskal Herriko enpresa eta zentro teknologiko nagusien berrikuntza eta eraldaketa industrial bultzatzea. Proiektuan 13 agente parte hartzen ari dira eta bederatzi erabilera kasu inplementatuko dira, eta kasu horietako hirutan Dbusek parte hartzen ari da.

Zehazki, proiektu berritzaile honen bitartez Dbusek hiru proba egingo ditu **17-Gros-Amara-Miramon eta 28-Amara-Ospitaleak lineetan**. Izan ere, linea horiek Miramon aldean zerbitzua ematen dute, eta Miramon da, hain zuzen, proiektuaren barruko ekintzen inplementaziorako lekuetako bat.

- **Bideozaintzako sistema:** Dbuseko autobusek kamerak dituzte autobusaren erabiltzaileen eta gidarien segurtasuna bermatzeko. Segurtasun kamerek **bereizmen handiz hartutako irudiak** prozesamendu zentrora **denbora errealean transmititzea** da batez ere erabilera kasu hori.
- **Autobus barruko wifi konexioa hobetzea:** Dbuseko autobusek wifi konexioa dute erabiltzaileen esku. Konexio hori 4G sare batean sortu da, eta horrek bere erabilera mugatzen du erabiltzaile bat baino gehiago ari bada konektatzen saiatzen. Proiektuaren bitartez **5G konexioa egiaztatuko litzateke**, zeinak erabiltzailearen esperientzia hobetuko lukeen.

- **Ibilgailuen mantentze lanak:** 5G sarearen erabilera autobusaren hainbat parametro monitorizatzeko eta horren bidez autobusaren mantentze lanak hobeto egiten laguntzeko.

Proiektuak 30 hilabete iraungo du, eta 7,1 milioi euroko aurrekontua dauka guztira. Aurrekontu horretatik, Dbusi 338.316€-ko aurrekontua dagokio, eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioak eta Eskualde Garapenerako Europako Fondoak (FEDER) elkarrekin finantzatzeko dute, Espainiako Eskualde askotako Programa Operatiboaren kontura (POPE).

Era berean, 2020an **Dbusek** Europako **REPLICATE** eta **E-MOBASK** proiektuetan **parte hartzen jarraitu du.**

- **“Ondo bidaiatu” kanpaina:** 2020ko martxoan, Dbusek kanpaina bat abiarazi zuen, “Ondo bidaiatu” lelopean. Autobus barruan batzuetan gertatzen diren bost kasuren inguruan zen, eta erabiltzaile guztiek bidaia atseginago egin dezaten bost gomendio ematen ziren. Kanpainarekin azpimarratu nahi zen garrantzitsua dela autobus zerbitzuen gainerako erabiltzaileak errespetatzea, eta portaera zuzenak nabarmentzen ziren portaera lotsagabeen eta batere zibiko ez direnak gaitzetsita.



Bost gomendio eman ziren (eserlekua lagatzea, oinak beste eserleku batzuetan ez jartzea, musika kaskoekin entzutea, ez jatea eta gainerako erabiltzaileen espazioa errespetatzea). Gomendio horiek beste kanpaina batzuetan ere jaso dira, baina sarri samar erregistratzen dira autobusetan, eta heziketarekin, elkartasunarekin, enpatiarekin eta gainerako pertsonetikiko errespetuarekin lotuta daude.

Autobusean, jendea elkarrekin egoten den beste edozein lekutan bezala, garrantzitsua da besteengan pentsatzea eta ikustea nola gure portaerarekin gainerako erabiltzaileak lagundu edo gogaitu ditzakegun.

- **“Donostia iraunkor baten alde Mugitu Dbusen” kanpaina:** Urtero, irailaren 16tik 22ra Mugikortasunaren Europako Astea izaten da, eta, aste hori dela eta, Dbusek sensibilizatzeko eta autobus erabilera sustatzeko kanpaina abiatu zuen, garraio publikoaren onurei lotutako ideia batzuen inguruan.

Mugikortasun ohitura iraunkorrak eta osasuntsuak sustatzeko Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuak bultzatutako programaren parte zen kanpaina.

- Garraio publikoan bidaiatuta bidaiaren denbora beste zeregin batzuetarako erabili dezakezu.
- Gastuak murriztu daitezke
- Ingurumena zaintzen da
- Espazio publikoaren erabilera hobetzen da
- COVID-19ari aurre egiteko segurtasun neurriak betetzen dira



- "Dbus eta Gabonak" marrazki Lehiaketa: 14. urtez jarraian, Dbusek haurrentzako Gabonetako Marrazki Lehiaketa antolatu zuen. Neska-mutikoen sormena sustatzeaz gain, lehiaketaren asmoa da gazteenak Donostian garraio publikoa erabiltzeak duen garrantziaz ohartaraztea, Donostiako hiri guneen eta donostiarren bizi kalitatearen iraunkortasuna bermatzeko balio baitu.

Edizio honetan 3 eta 12 urte bitarteko 1.405 hurrek parte hartu zuten.



8) Berdintasun Politikak:

BAI SAREA Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Erakunde Laguntzaileen sarea da, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutakoa, eta bertako partaide aktiboa da. Hori horrela, lan eremuan berdintasuna lantzen eta sustatzen jarraitu du DTK-k.

2020an, Konpainian emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoerari buruzko **diagnostiko berria** lantzen hasi zen, eta 2021. urtearen hasieran amaitu da diagnostikoa.

Era berean, gidarien lan poltsa berri bat sortzeko deialdi berri bat abian jarri zela-eta, Dbusek informazio kanpaina bat sortu zuen Donostian



autobus gidari izan nahi duten emakumeei zuzenduta.

"Inork ez zaitzala frenatu", "Emakumea zara? Primeran!" leloekin. eta "Zurekin abiatu nahi dugu", Dbusek emakumeak prozesu horretara aurkeztera animatu nahi zituen. Konpainiako emakume gidariak ziren kanpainaren protagonistak, eta kanpaina Donostiako markesinetan zein autobus batzuen errotulazioan, Dbusen webgunean eta bere sare sozialetan egon zen ikusgai.

Kanpaina horrekin asmoa zen sektore maskulinizatu honetan gidari lana gehienbat gizonezkoen lanbidea deneko ideia haustea. Emakundek jardunbide egokitzat jo zuen, eta 2020ko erreferentziako bi kanpainetako bat.

Halaber, 2020an, BAI SAREaren **Soldata Arrakalaren lantaldeak garatutako lana** aurkeztu zuen Konpainiak, enpresetako berdintasunaren alorreko aurrerapenei buruz antolatutako jardunaldi batean. Soldata Arrakalaren lantaldean, zehazki, sarea osatzen duten erakunde guztiek beren enpresetan duten egoera aztertzeke eta soldata arrakala murrizteko neurriak abian jartzeko baliagarri dituzten tresnak lantzen dira.



Informazio gehiagorako, begiratu www.dbus.eus helbidean edo 943 000 200 telefonoan galdetu.

